

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Gitarra flamenkoa euskal folk-popera hurbildu zenekoa



**Minus bat.**  
Badaukat.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 46'33".  
10 euro.

GETXOKO taldearen berri lehenengoz izan nuenean irakurri nuen flamenkoa eta euskara batzen dituztela, baina hori oso pieza gutxitan gertatzen da, *Gernikako tangoak* runberoan adibidez. Hain zuzen ere, bi gitarra eta bi ahots batzen dituen laukote honek gitarra flamenkoa eta horren soinua ditu oinarri, baina bi ahots ederrek gidatzen dituzte kantak eta horietan euskaraz abestutako folka eta popa dira nagusi. Goxoak dira kantak, hurbile-

koak eta xamurtasuna eta poztasuna transmititu nahi dutenak. Melodiek badute, baita ere, 70eko hamarkadako euskal kantagileen arrastoa eta malenkonía pixka bat; eta gitarretan antzeman daiteke Led Zeppelin, Dylan eta iraganeko dinosauroen akordeen ezkuto arrastoa ere. Bestalde, *Barne bizipenak* da kanta bereziena, erregistro ugari gordetzen dituen.

[www.myspace.com/badaukat](http://www.myspace.com/badaukat)

### Badaukat

## «Musikaren bidez sentimenduak eta batez ere poztasuna zabaldu nahi ditugu»

“Badaukat” *el duende*? Nola dakizue kanta batek balio duela, zerbait berezia daukala?

Ezinezkoa da hala den jakitea, baina guretzat bereziak dira ilusio handiz sortutakoak direlako, igortzen duten mezua gustatzen zai-gulako eta zer esana dutelako. Hitz errazak eta melodia garbiak: ahots bi eta gitarra bi, besterik ez dago disko honetan. Sinpletasunak bere xarma du. Hori ote sekretua?

*Barne bizipenak* pieza salbuespen-tzat hartuta, oso disko positiboa da hau, eta denboraren iraganari ere baikortasunez idazten diozue...

Bizitzari aurpegi ona jarri behar, noski, ez dago beste erremediorik. Hainbeste ez behar, bizitza hain da konplikatu... Edozein gertakari-aren aurrean jarrera baikorra izatea oso lagungarria da eta bizitzako oztopoak errazago gaınditzen dira. Musikaren bidez sentimenduak eta batez ere poztasuna zabaldu nahi dugu.



Nola jakin zuen Jose Herediak gitarra flamenkoa eta euskara hain bate-ragarriak direnik?

Bere hitzetan hori sentitzen, sumatzen edo intuizten zuelako. Euskararen fonetika gustatzen zaio flamenko airearekin batuta. Adibidez, izugarria iruditu zitzaion Estrella Morentek Kepa Junkerarekin abestu zuenean.

Lanari *Minus bat* izena jarri diozue kanta bat bidean gelditu delako...

Bai, hamabigarren kanta sortua dago, baina arazo batzuen erruz kanpoan gelditu zen. Hurrengo dis-

korik baldin badago, han izango da. Oso abesti alai da, *Sebaketa kantarekin* lo gelditu den haurtxoaren ametsa kontatzen dugu.

Nolakoak dira zuen kontzertuak? Folkak edo flamenko erromeriak?

Gure kontzertuak folkak dira batez ere. Asmoa behintzat hori da, eta ildo horretatik bideratzen ditugu gure entseguak. Ez dugu flamenkoa zentzu hertsian lantzen, bestelako estiloak landu nahi ditugu. Izan ere, gutako bakoitzak musika estilo bat entzuten du eta horien ispilu dira gure kantak. ■